

# noaua

## EMAKUMEEN ETXEAREN ETA KALEZARKO AUZOTARREN ATERPE BERRIA IZANGO DA PELAIOENEA ERAIKIN BERRITUA

Herri ekitaldi ikusgarri batekin inauguratu zuten Pelaioenea eraberritua Kalezarren / 09-11



ARGAZKIA: NOAUA




NOAUA

**'Zumetaren Usurbil'**  
erakusketak ostiral  
honetan zabalduko  
ditu atak / 06-07




NOAUA

**32 milioi euro,**  
Aginagako tunela  
eraiki eta trenbidea  
bikoizteko / 18



LABURBIRA

**XXI. Laburbira**  
Sutegiko auditoriora  
iritsiko da igande  
honetan / 20



ERROIZPE

**Larunbat eguerdian,**  
The Bedbreakers  
talde akustikoa  
Txokoalden / 22





*FINKA ADMINISTRATZAILEA*

*AHOLKULARITZA ZERBITZUA*

*INMOBILIARIA*

*ASEGURUAK*

**943 573 693**

*Eusko Gudari 35, ORIO*



**Bertso-Ibilaldia Usurbil  
inguruko Sagastietan barrena**

**SAGASTIAK LORETAN**

**Apirilak 21, IGANDEA**

10:00tan Iruin sagardotegiko  
aparkalekutik abiatuta

**Izen-ematea:**

alkartasuna@usurbil.com edo 943 361114.

*Sagardoaren paisaia kulturala ezagutzeko  
parada, Maialen Lujanbio eta  
Andoni Egañaren bertsoak adituz eta  
Jakoba Errekondoren argibideak jasoz*



**ORIANTE BHI**

[www.oriarte.hezkuntza.net](http://www.oriarte.hezkuntza.net)

**BATXILERGOKO-ko IKASLEEN ONARPENA 24-25**



**Larrekoetxe eraikina**

Buenos Aires aldapa 1,  
20160 Lasarte-Oria  
943 89 94 92

# Udalaren eta Foru Aldundiaren arteko bilera

Legealdi honi dagokion lehen bilera egin dute Usurbilgo Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako departamenduak, "erakundeen arteko lankidetzan aurrera egiteko".



Bus zerbitzua erabiltzaileen beharretara moldatzeko eskaera egin zuen Udalak.

Usurbilgo turismo eskaintza eta mugikortasun gaiak izan zituzten hizpide alkate Agurtzane Solaberrietak eta aipatu departamenduko buru Azahara Dominguezek iragan martxoaren 26an. Mugikortasun gaiiei dagokienez, Lurraldeburu hartu zuten ahotan. Autobus

zerbitzua erabiltzaileen beharretara moldatzeagatzen zuten Solaberrietak. Horretarako, "lineen ibilbideak egokitzeko eta udalerrian dauden geltoki batzuen aldaketak" eskatu zituen. Gai hau aztertzeko konpromisoa hartu zuen Foru Aldundiko ordezkariak.

Bestalde, 650 Usurbil Bizi herri egitasmoa ere ahotan hartu zuten. Proiektu honen baitan abian diren ekimenetako bat "Usurbil Museo Irekia" dugu, herri honetako kaleetan dugun kultur sorkuntzaren ezagutza sustatzen duten bisita gidatuak

hain zuzen. Egitasmo honen eta orohar, udalerrri hau bultzatzen ari den bestelako turismo eredu honen harira bideratuko diren ekimenak bultzatzen laguntzeko konpromisoa hartu zuen Foru Aldundiko diputatuak.

## Garbigune mugikorra, Txokoalden

Apirilaren 11tik aurrera, garbigune mugikorra Usurbilen izango da. Era honetan, etxeko hondakin berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Apirilaren 18an osteguna, garbigune hau Santuenera eramango dute.

## 1964an jaiotako bazkaria ekainaren 1ean izango da

Bazkaria Atxega jauregian egingo da. Izen-emateko epea ere finkatu dute; maiatzaren 15era arte 647 458 997 telefono zenbakian (Mari Jose). Telefono zenbaki horretara deituta jaso ahalko dira ordainketa nola egin nahiz hitzorduari buruzko argibide gehiago.

## 1952an jaiotako bazkaria apirilaren 27an egingo da

Apirilaren 27rako antolatuta dute kinto bazkaria. Artzabalgogorri jatetxean batuko dira. Oturuntza eguerdiko 14:00etan hasiko da. Apirilean egingo bada ere, izena emateko epea zabalik da honez gero. Horretarako, deitu 620 516 715 telefono zenbakira (Javier).

## Sendabelarren tailerra Txokoaldeko Txokoargin

'Sendabelarrak ezagutu eta bildu' izeneko tailerra apirilaren 20an egingo da, 10:00-12:00 artean, Txokoargi elkartearen egoitzan. 12 lagunentzako tokia egongo dela ohartarazi dute. Izena aurrez eman beharko da 619 591 849 telefono zenbakian; 17:00-19:00 artean deitu.

**noaua**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea:**  
Noaua Kultur Elkarte  
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil  
943 360 321  
elkartea@noaua.eus

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkari koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:**  
Aitaiz Aizpurua.

**Erredakzio kontseilua:**  
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,  
Imanol Ubeda.  
**Diseinua:** Goiena.  
**Publizitate arduraduna:**  
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321  
publizitatea@noaua.eus  
**Banatzaleak:**  
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.  
**Lege Gordailua:** SS-668-96.  
**ISSN:** 1136-6818.

**Tirada:** 2.980 ale.  
**Imprimategia:**  
Antza inprimategia. Zirkuitu  
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.  
**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala



## IRITZIA



ALAZNE ARRUTI

## Aginaga Biziberritzen Herri Kooperatiba

**D**uela denbora bat, ia 2 urte zehazki, Herri Kooperatibeninguruan aritu nintzen hementxe. Egia aitortu beharra badut, nahi edo hobe esanda, irudikatu nuena baina bide luzexegoa izan da. Baina tira, izena duena badenez, dagoeneko eskriturazten gabiltza Aginagan sortzearen Herri Kooperatiba.

Aginaga Biziberritzen deitu diogu eta egiaz, izenak berak oso ondo laburbiltzen du bere funtsa. Pixkanaka, denborak eta bidean hartutako zenbait erabakiek higatu duten herri-gune bat biziberritzeko helburua izan baitu muinean. Akaso, higatze hori zertan datzan galdetuko duzue batzuek. Eta nik, bertan jaio eta hazi naizen 28 urteko gorputz eta bizipenetatik kontatuko dizuet nire irakurketa oinarritzkoa.

Aginagan lehen, herriaren topaleku zen plaza arkupean bat genuen. Nik argazkietatik oroitzen dut batez ere, baina nahasiak ditut entzun eta ustez bizitako zenbait oroitzapen katramilan. Herri kirolak, soka-tira, musika eta ospakizunak... herria eta bere bizitasuna, guztiak bildu eta elkarren parean jartzen zituen gune bat dator kit burura. Gaur egun ordea, frontoiaren zuloak betetzen du bere hutsunea. Eta tira hozpela den arren, estalpea izanik erabilera ematen diogunik ezin ukatu behintzat.

Baten batek txorakeria dela pentsatu dezakeen arren, hiri-



"Nola garatuko da herri bat oinarritzko baliabiderik gabe?". Argazkia, artxibokoa.

gintzak herri batean sekulako eragina izan dezake. Nola ez dira higatuko harremanak, topaleku eroso eta gustukorik izan ezean? Honi lotuta ere, hainbat urtetan zerbitzu paregabea eskainizuen herriko denda itxi izana galera nabaria izan zen, eta ez du maila bereko ordezkorik topatu gaurdaino tamalez. Erdiguneko taberna bera ere, itxita egon izan da, eta Eskola Txikia ere hiltzorian noiznahi...

Nola garatuko da herri bat oinarritzko baliabiderik gabe?

**"KOOPERATIBA BATEN BIDEZ, DENDA ZERBITZUA, TELEKOMUNIKAZIOAK, KULTURA ETA HERRITARREN ZAINZA... KOLEKTIBIZATU NAHI DITUGU"**

Elkartzeko, eguneroko erosketak egiteko, kafea hartu eta harremanak elikatzeko espaziorik gabe? Nola mantenduko da eskola eta areagotuko biztanleria, familia berriak bizitzeko etxerik ez eta zerbitzu gabezi honi irtenbiderik eman gabe? Nola eraiki bizitza bizigarriak, elkarrekin batu eta auzolanik gabe?

Bada, egoera konplexu eta berezi honi gehiago luzatzen utzi nahi ez diogulako batu gara zenbait herritar. Eta gure artean azaldu ohi dugun gisan, suitzar labana baten antzera jardungo duen figura juridiko berri bat diseinatzeari ekin diogu. Irabazi Asmorik gabe, Kooperatiba baten bidez, denda zerbitzua, telekomunikazioak, kultura eta herri-tarren zaintza... kolektibizatu nahi ditugu besteak beste. Etorkizun hobeago bat eraiki asmotan gabiltza eta bidea hasi besterik ez dugu egin. Zatozte bisitan eta zikindu eskuak gurekin batera!

## Gure Elkarteak omentutako auzotarrak

Santueneko Gure Elkarteak 75 urte betetzen dituzten auzotarrak omentzeko ohitura du. Mari Anjeles Agirrezabala, Luis Lizeaga eta Teodoro Moreno izan dira aurtengo protagonistak. Martxoaren 10ean Atxega jauregian egin zen ospakizunean oroigarri bana jaso zuten.



Teodoro Moreno, Mari Anjeles Agirrezabala eta Luis Lizeaga, garaikurrak eskuetan.

## Antzezlanak Gure Pakeakoen eskutik

Lau antzezlan antolatatu ditu Gure Pakea Elkarteak apirilaren 19an, arratsaldeko 18:30ean Sutegiko auditorioan. Honako hauek: 'La fablilla del secreto bien guardado', 'El Oso', 'Cuando las mujeres juegan al mus' eta 'Sinceridad'.



Apirilaren 19an, lau antzezlan eskainiko dituzte Sutegin.

**UNE  
HISTORIKOAK  
2024**





## Dantzaren aroan murgiltzear



Dantza Egunean faltako ez den osagaietako bat tranpaldotatik irekia izango da.

Badator 12. Dantza Eguna! Apirilaren 27an dantzarien herria izango dugu Usurbil. Astebete lehenago, Dantzari Txikien Eguna iragarri du baita Orbeldik. Apirilako azken bi asteburuak, beraz, dantza batean joango zaizkigu udalerrir honetan.

Aurrerapen gisa, datorren Dantza Egunean faltako ez den osagaietako bat tranpaldotatik irekia izango da. Laugarrenez, herriko dantza taldeak bere sormenerako gaitasuna herriarekin partekatu nahi dutenei oholta eskaini nahi die. "Zure talentua erakusteko aukera paregabea!" izango dela aurreikusitako beste behin. Oraingoan, ordea, berrikuntza nabarmen batekin. Izan ere, aurreko edizioetan, dantzan oinarrituriko koreografiak eskaini zituztenek baino ezin zuten parte hartu ekimen honetan. "Hau aukera paregabea izan da herriko dantzariak beraien sorkuntzaren bidez koreografia paregabeak asmatu, plazaratu eta disfrutatzeko. Ikuskizun ederrak izan dira eta asko eskertzen dugu parte hartze zabalari", adierazi du Orbeldik.

Oraingo honetan, aldiz, "dantzatik haratago joan nahi du, eta kultur adierazpide guztientzako eszenatoki bilakatuko da. Dantzari, abeslari, musikari,

antzezle... guztiontzat irekia dago Tranpaldotatik! Bakarlarri eta taldeentzat! Jakin oholtzak ez duela adin mugarik!", gogorazi du Orbeldik. Ekimenean parte hartu nahi dutenentzako izen-emateko epea zabaldu dute apirilaren 20ra arte.

### Apirilaren 20 arte

12. Dantza Eguneko tranpaldotatik irekian izen-emateko aukera orbeldi. udt@gmail.com helbidean edo Orbeldiren sare sozialetan.

### Apirilak 20, larunbata 5. Dantzari Txiki Eguna

11:30 Kalejiraren hasiera udal txetik.

13:00 Emanaldia frontoian.

14:00 Dantzarien bazkaria.

16:30 Elizagoien Ahizpekin erromeria.

### Apirilak 27, larunbata 12. Dantza Eguna

12:30 Tranpaldotatik irekia Olanoneako plazan.

14:00 Kantu bazkaria Askatasuna plazan. Txartelak Artzabalena salgai.

17:00 Dantza kalejira.

18:30 Bamboo Dance erakustaldia Olanoneako plazan.

22:00 Borobil ikuskizuna.

Jarraian, Bide Batez erromeria. Antolatzailea: Orbeldi.

Laguntzailea: Udala.

## Errenta aitortzeko garaia iritsi da

Gipuzkoako Foru Aldundiak finkatuak ditu iazko errenta aitortzeko datak:

Apirilak 8-uztailak 1:  
Proposamenak onartzea.

Apirilak 11-uztailak 1:  
Internet bidezko aitortpenak.

Apirilak 16-uztailak 1:  
Errenta mekanizatuko errenten aurkezpena. Hitzordua, apirilaren 12tik aurrera eskatzeko aukera.

Informazio gehiagorako:  
943 112 111  
gipuzkoa@gipuzkoa.eus

## "Vachoca" tailer artistikoa Artzabalgo aretoan

Etxea gaitzat harturik, tailer artistiko bat iragarri dute Artzabalena. Esperientzia honen bitartez helduak sormenarekin harremanetan jarriko dira. Material desberdinekin esperimentatuz eta jolastuz, momentu atsegin bat igarotzeko xedearrekin. Proiektuan zehar ezagututako pertsonen egorak kontatuko dira, elkarriketa eta kontzientzia kritiko eraikitzailea bultzatuz.

Apirilaren 25ean osteguna, goizeko 10:00-11:30 artean egingo da Artzabalgo aretoan, 60 urtetik gorakoentzat. Gehienez 15 lagunentzako lekua egingo da.

## 'Harpa Jotzen' berriro ere

"Bat egin harpa-jotzaile komunitatearekin!". Hortxe geure aisialdi tarterako Idoia Torregarai eta Mirari Martiarenak egindako gonbita. Izan ere, EITB Podcast atariko 'Harpa Jotzen' podcastaren bigarren denboraldia estreinatu dute udaberriko opor hauetan. Iazko lehen zortzi atalei segida emanez, Ana Goitia eta Antton Telleria gonbidatu dituzte, azken asteotan.

### Saio bat Lur Errekondorekin

Astero gai bat hartuko dute ahotan gonbidatu ezagunekin. Hiru Damatxok ekoiztitako saioko gonbidatuen artean, iragarri dutenez, herrikide bat izango dute; Lur Errekondo.

## Apirilaren 21ean, organo kontzertua

Gipuzkoako Organoak Plazara zikloaren zazpigarren edizioa antolatu dute Musikeneke eta Gipuzkoako Foru Aldundiak. Irunen, Ataunen, Azkoitian, Deban, Donostian, Zumaian eta Usurbilen iragarri dituzte ziklo honen baitako kontzertuak. Usurbilgoa izango da azkena, apirilaren 21ean, 17:00etan Salbatore Elizan. Thierry Escaichen kontzertuaz gozatu ahaliko da. "Frantziako inprobisazioaren erakusle nagusia den Thierry Escaich organista ospetsuak bi inprobisazioen arteko programa aurkeztuko du Usurbilen". Salbatore elizarekin eta Usurbilgo Udalarekin lankidetzan egingo da ekitaldi hau.

**Antxeta**  
TABERNA  
egunero irekitzen dugu!  
· eguneko menua · asteburuko menua  
· oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..  
paellak enkarguz!  
943 54 43 12 Zubiaurrena 6, Usurbil.

**eskura**  
elikadura eta dietetika aholkularitza  
DIABETESA, HIPERTENSIOA,  
GIZENTASUNA, ELIKADURA  
ETA KOLESTEROL ARAZOK  
688 843 696  
Zubiaurrena 1, 1c Usurbil

**BORDATXO**  
taberna  
Pintxo Bereziak  
943 37 10 42

**URDAINTZI S.L.**  
Eraikuntzak  
649 43 54 75  
943 36 72 64  
IT-CIK egiten dira  
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK



Erakusketa artista usurbildarraren eta bere sorterriaren arteko hartueman artistikoan oinarritzen da.

# 'Zumetaren Usurbil' erakusketa, muralaren 50. urtemuga borobiltzeko

Jose Luis Zumetak duela 50 urte sortutako frontoi atzeko muralaren harira, iaz hasitako urtemuga ekimenak azken txanpan dira. Berez, iazko udazkenean borobildu behar zen zikloari apirila honetan emango zaio amaiera, 'Zumetaren Usurbil' izeneko erakusketarekin.

Frontoi atzeko muralaren 50. urtemugan, hari buruzko erakusketa zabaldu zuten iaz urte garai honetan, Sutegin. Ostiral honetan irekiko duten erakusketa ere orduko bilduma hartan txertatu asmo zutela dio Usoa Zumetak. Baina "lehenengo erakusketa horrek dimentsio handia hartu zuen. Azkenean, ikerketa lan horrek obra asko eman zituen, oso aberatsa izan zen zentzu guztietan. Testura handiko erakusketa izan zen eta erabaki nuen bi erakusketa egitea". Aipatu moduan, bigarren hau, pasa den irailean irekitzea aurreikusia zuen, baina "ikerketa luzatu da eta azkenean, egoki iruditu zaigu urteurren hau borobiltzeko orain egitea".

Bi astez Sutegiko aretoan ikusgai izango duzuen Zumetaren sortze lan bildumari buruz Usoak aurreratu duenez, "Usurbili erreferentzia egiten dioten artelanen bildumatxo da". Askotariko lanak aurkitu ahal izango dira bertan. Adibide moduan aipatu ditu, Zumetaren ibilbide artistikoan sakontzeko aukera emango diguten hainbat lan; 1960.

**ERAKUSKETA OSTIRAL HONETAN INAUGURATUKO DA ETA HILAREN 28RA ARTE EGONGO DA ZABALIK**

urtetik hasi eta 2018ra arteko sorkuntza lanak aurkituko baititugu Sutegin.

**Erakusketarekin batera katalogoa** 'Zumetaren Usurbil' artelan bildumaren, aitzindariena, 1960koa da, beste artista herrikide bat islatzen duena: Joxan Artzeren erretratoa. Erretratuez gain, txorien maketak, kartelak, materialez zer

**"USURBILI ERREFERENTZIA EGITEN DIOTEN ARTELANAK BATU DITUGU"**

USOA ZUMETA

hausnartua emango diguten beste hainbat pieza,... Bilduma hau erakusketan ikusgai jartzeaz gain, "katalogo batean" jasoko dela berri eman du Usoa Zumetak, "maketatze prozesuan dagoena, eta baita ere aukera ematen digu ere fokua jartzeko obra figuratiboan, gehiengoa figuratiboa baita".

**Agurtzane Solaberrieta: "Sinbiosi sakon horretan sakondu nahi du erakusketak"** Usurbildarrentzat erakusketa berezia izango dela iragarri du Potxoenero aurkezpenean, alkate Agurtzane Solaberrietak. "Askotan esan izan dut, ezin dugula ulertu Usurbil Zumetarik gabe. Seguru alderantziz ere ezingo litzatekela ulertu, binomio banaezin bat sortzen dutelako eta hor sinbiosi sakon bat" dagoelako. Alkatearen esanetan, "sinbiosi sakon horretan sakondu nahi du erakusketa honek, Zumetaren obra zabal eta handi horretan Usurbilek eta usurbildarrek izan duten tokia erakutsiko baitu. Horregatik, niretzat, Usurbilgo herriarentzat, ohorea, luxua da, 'Zumetaren Usurbil' erakusketa osatzea, erakusketa horretaz gozatu ahal izatea". Erakusketa hau ireki ahal izateko Usoak aurrez eginiko ikerketa lanagatik eskertu nahi izan du, horrek ahalbidetuko baitu Sutegin bilduma hau bisitatu ahal izatea eta "herritik kanpora ere ere erakusketa horretaz gozatzeko aukera izatea".

Alkateak gogorazi moduan, honako hau izango da iaz frontoi atzeko muralaren 50. urtemugaren harira abiarazitako ekimenen zikloari amaiera emango dion hitzordua. "Horma-irudi hori arrazoi askorengatik Usurbilgo herriaren erakusleho eta altxor nagusietako bat da, Usurbilgo irudirik ikoniko eta ikusgarri netarikoa eta nahiko genuke horma-irudi horrek leku propioa izatea Euskal Herriko artelan esanguratsuen artean".



# Apirileko bisita gidatuek bat egingo dute erakusketarekin

Apirilaren 14, 20 eta 28ko Usurbil Museo Irekia bisita gidatuek 'Zumetaren Usurbil' erakusketarekin bat egingo dute.

Zumetaren muralaren 50. urtemuga ez zuten oharkabean pasatzerik nahi eta ekimen ziklo hau antolatzea erabaki zuten, eragile ezberdinen arteko lankidetzari esker; "batez ere, nagusiki nabarmendu nahi dut Zumeta Arte Estudioarekin izan dugun elkarlana".

Frontoi atzeko sorkuntza lanaren kontserbazio lanak, bere sorkuntza prozesua azaldutako erakusketa eta haren harira argitaratu zitzaizen liburua, Oxkar Alegriak Zubietan herrikideekin ekoitzitako 'Zumeta 23' film laburra eta Kulturguneak ondutako Xumetik herri jaialdia bideratu dituztela azken urtean ekarri zuten gogora alkateak.

Horrez gain, 650 Usurbil Bizi herri egitasmoaren eta Chillida Lekuren artean, Zumetaren eta Chillidaren lanak ezagutzeko lankidetzaz ere sustatu


dutela gaineratu zuen Sola-berrietak, zenbait bisita gidatu antolatuta. Zikloa, aipatu moduan, 'Zumetaren Usurbil' erakusketak borobilduko du.

## "Zumetaren Usurbil" erakusketa

### Apirilak 12-28

- Apirilak 12, ostirala: 18:00, "Zumetaren Usurbil" erakusketaren irekiera. Hortik aurrera, apirilaren 28ra arteko ordutegia:
- Astelehenera: 17:00-20:00.
- Asteartetik ostiralera: goizez eta arratsaldez, 11:00-13:00 eta 17:00-20:00.

## BISITA GIDATUETAN PARTE HARTZEKO, AURRETIK IZENA EMAN BEHAR DA



1960an, Zumetak Artzeri eginiko erretratua. Artzek bere etxean zuen ipinia.

- Larunbatak eta igandeak: goizez eta arratsaldez, 11:30-14:00 eta 17:00-20:00.

### Apirilak 14, 20, 28

12:00 "Usurbil Museo Irekia" bisita gidatua Sutegitik abiatuta.

Segidan, 'Zumetaren Usurbil' Sutegiko erakusketara bisita.

### Izen-ematea:

650usurbilbizi.eus

### Antolatzailea:

650 Usurbil Bizi.

## Liburuaren hilabetea Sutegin

### Apirilak 15, astelehena

• 18:00 "Irakur-jolas txokoa", 6-8 urte arteko haurrei eta haien gurasoei zuzendutako ekimena izango da. "Liburuak eta irakurketa partekatze

ideiak eta baliabideak eskainiko dira".

### Apirilak 23, asteartea

• 19:00 Xabier Mendigurenen *Oso latza izan da* (Elkar) kro-

nika literarioari buruzko solasaldia egilearekin berarekin.

• Oharra: *Oso latza izan da* liburuaren aleak eskuragarri dituzue udal liburutegian.

### Apirilak 30, asteartea

• 18:00 Yolanda Arrietaren *Gutunak birramonari* (Deno-

nartean) liburuaren aurkezpen-tailerra 8-10 urte arteko haurrentzat eta haien gurasoentzat.

Izen-ematea: Sutegi udal liburutegian.

Oharra: plaza mugatuak izango dira.

Antolatzailea: udal liburutegia.

**ZENDOIA**  
**ENA** taberna  
Kale Nagusia 35, Usurbil

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
9:00-13:30  
ASTEARTETIK LARUNBATERA  
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

USURBIL DÖNER KEBAB  
843 675 265  
603 609 183  
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL\_DK  
Borda Berri Kalea, 5

943 361182  
**EROSKI** /city  
kale Nagusia 10, USURBIL



Jessica Menchero "Crisálida" liburuaren egilea Potxoenean izango da larunbat honetan. JESSICA MENCHERO

# "Idazteak bizitako guztia kanporatzen laguntzen dit"

**JESSICA MENCHERO** 'CRISÁLIDA' LIBURUAREN EGILEA

Jessica Menchero fisioterapeuta madrildarrak genero-indarkeria eta minbizia pairatu zituen liburu bat argitaratu berri du bizipen horien gainean. Iñurri elkarteak lagunduta, liburuaren aurkezpena egingo dute larunbat honetan Potxoenean, eguerdiko 11:30ean.

**Liburuaren deskribapen txiki bat egin beharko bazenu, zein izango litzateke?**

Neure burua sendatzeko idatzitako eta laguntzeko argitaratutako liburua da. Nire biziaren deskribatzen ditut, 30 urte besterik izan ez arren, xehetasunez kontatzen dut bikotekide ohi eta judoko entrenatzailearengandik jasan nuen tratu txar psikologikoa. Hura ni baino 19 urte zaharra goa zen. Infernu horretatik irten eta urtebetera minbizia diagnostikatu zidaten, 4 urte borrokatu behar izan dudana. Zorionez, amaiera zorionsua duen istorioa da. Hala eta guztiz ere, nire fisioterapia-klinika sortzea lotu nuen, eta oso pertsona zorionsua naiz. Liburuarekin tratu txar psikologikoa

ikusarazi nahi dut, horrela, halakorik jasaten ari diren pertsona askori lagundu ahal izateko. Azken batean, arazoak arazo, zorionsu izan zaitezke.

**Iñurrik liburuaren aurkezpena antolatu du. Nola jakin zenuen elkarte honen berri?**

Kasualitatez aurkitu nuen sare sozial batean. Tratu txarrei eta minbiziari helduko zieten elkarte eta pertsonen bila nabilen, nire liburuaren amaieran horiek guztiak agertuko ziren zerrenda bat jartzeko.

**Zure bizipen pertsonalek bultzatu zaituzte liburua idaztera?**

Bai, nik liburua ez argitaratzeko ideiarekin hasi nuen. Lagunbati zerbait esaten diogunean edo mezu bat bidaltzen dio-

gunean, ezer esaten ez badigu ere, hobeto sentitzen garelako pentsatu nuen idazten hastea. Nire kasuan, behintzat, idazteak bizitako guztia ateratzen eta burua lasaitzen laguntzen dit. Idatzi ahala, erabat ahaztuta neuzkan gauzak gogoratzen nituen, eta horiek dira, beste faktore batzuekin batera, gaixotu egiten zaituzten gauzak.

**"INDARKERIAK EZ DU AURPEGI ATSEGINIK, MINBIZIA ARROSA KOLOREKOA EZ DEN BEZALA"**

**Zein harreman dute genero-indarkeriak eta minbiziak?**

Biak gertaera traumatikoak dira, eta arrasto oso nabarmena uzten dute buruan. Nire kasuan, lehenengo genero-indarkeria jasan nuen, eta gero minbizia. Erasotzailearekin bizi izan nituen 5 urteak izugarriak izan ziren, eta depresio larrisamar batean sartu nintzen. Depresio horretan laguntza profesionala eskatu eta botikak hartu behar izan nituen. Bost urte horietan, nire gorputzak estres handia jasan zuen. Ondo dakigunez, estresa ez da ona, eta are gutxiago hainbeste denboran. Kortisol maila altuak mota guztietako gaixotasunak agertzea errazten du, minbizia barne. Zaila da frogatzea, baina uste dut, nire kasuan, horrek sortu zidala minbizia. Somatizazioa existitzen da, eta uste baino eragin handiagoa du organismoan.

**Coach zara eta genero-indarkerian aditua. Komunikabideek indarkeriaren aurpegirik 'atseginena' erakutsi nahi dute (aurpegi adeitsurik badu). Ikusarazi nahi diguten adina aurreratu al dugu?**

Bene-benetan uste dut benetako istorio gehiago behar direla. Aurpegia eman diezaiekegun pertsonen istorioak, baita hitz egin eta gure zalantzak ager ditzakegun pertsonenak ere. Nire ustez, istorio horiek eta pertsona horiek dira benetan gizarte hau aldatzen laguntzen dutenak eta, batez ere, etorkizuneko belaunaldiak hezten laguntzen dietenak; izan ere, zenbait mekanismo eta jarrera daude, eta, hala ez diruditen arren, tratu txarrek dira, eta, beraz, ez ditugu jasan behar. Egia esan, ez ditut albisteak ikusten eta irakurtzen. Genero-indarkerian sartuago nagoenez, hori ikusarazten eta hezten diharduten emakumeek jarraitzen diet. Zerbait aurreratu dugula uste dut, baina, jakina, asko geratzen zaigu hobetzeko. Eta indarkeriak ez du aurpegi atseginik, minbizia arrosa ez den bezala.





Udaletxe atarian hainbat tramite egiteko jarri duten makina berria.

# Udalak herritarrentzako arreta zerbitzua indartu du

Herritarrei egunerokoan eskaintzen dien arreta zerbitzua hobetu eta indartu du Usurbilgo Udalak. Udal-langileak ere sistema berriaren onuradunak izango dira.

Hobekuntza hauen onura ez dute soilik herritarrek sumatuko halere, "udal-langileek barruko lanak egiteko berriazko denbora izatea ere bada neurrian helburua".

## Hiru aldaketa nagusi

Udaletik berri eman dutenez, hiru izango dira nagusiki txer-tatuko dituzten aldaketak; "aurrez aurreko arreta ordutegia ezarriko da, telefonoetako luzapenak jarriko dira martxan eta zenbait tramite egin ahal izateko makina jarriko da atarian". Lerrootan dituzue xehetasunak.

## Aurrez aurreko ordutegia

Udal zerbitzuetarako ordutegi zehatza finkatu dute herritarren arretarako aste hasieraz geroztik, udal langileek "zenbaitetan, barruko lanak egin ezinda ibiltzen dira" eta, jakinarazi dutenez, Udal zerbitzu guztietako ordutegiak bateratzen ahalgindu dira. Era honetan, beraz, herritarrei eskaintzen dieten arreta eta barruko lanak egokiago uztartzea sustatu nahi dute:

## Udaletxea

Aurrez aurreko arreta (harre-ra, kontu hartzailletza, atez

ateko bulegoa, hitzorduak): 09:00-14:00, astelehenetik ostiralera.

## Potxoenea:

Aurrez aurreko arreta, orain artekoa: 09:00-14:00, astelehenetik ostiralera. Giltza ordutegi horretan eskatu beharko da.

**ERROLDA AGIRIA  
ATERA ETA HAINBAT  
ORDAINKETA  
EGIN DAITEZKE  
MAKINA BIDEZ**

## Gizarte Zerbitzuak:

Aurrez aurreko arreta: 09:00-14:00, astelehenetik ostiralera, asteazkenetan izan ezik.

## Berdintasun eta Aniztasun sailak:

Pelaioenean kokatuta dituzte dagoeneko. Aurrez aurreko arreta: 10:00-13:00, astelehenetik ostiralera (astearte eta ostegunetan, 17:00-20:00 artean ere bai).

## Oiaro eta udal liburutegia:

Orain arteko ordutegia izango dute.

## Atariko makina

Tramiteak egitea errazteko udaletxe sarrerako makina baliatzeko aukera izango da. Bertan, tramiteak nor bere kontutik egin ahalago ditu. "Hasi-erian, errolda agiria atera eta zenbait ordainketa egiteko aukera emango du, eta, pixkanaka, funtzio gehiago instalatu eta zerbitzu zabalagoa eskainiko du", iragarri dute Usurbilgo Udaletik. Makina erabiltzeko ordutegia Udal-tzaingoak duen bera izango da: astelehenetik ostiralera 07:30etik 21:00etara eta larunbatetan, 09:00etatik 21:00etara.

## Telefonoetako luzapenak

Orain arteko 943 371 951 telefono zenbakira "deitzen duenari aukera eskainiko zaio udaleko zein sailekin hitz egin nahi duen hauta dezan; hala ere, harrerako langileekin hitz egin nahi dutenei ere horretarako aukera emango zaie". Beste eraikinetan dauden zerbitzuekin hartuemanetan jartzeko orain arteko telefono zenbakietara hots egin beharko da.

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA  
Zubiarrenea 8, USURBIL  
943 37 00 08

**Otar-Goxo**  
Elkargak  
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81

**Inaki Iturgintza**  
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
Info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com  
600 024 825

**www.noaua.eus**  
USURBILGO ATARIA



Txirikorda belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioa bizilagunez betetzen hasia da.

# Maiatzaren 10ean irekiko dute Txirikorda

Udalak zehaztu du bere konpromisoak ez betetzeagatik Murias enpresa eraikitzaileari kobratu beharreko kalte-ordaina.

Txirikorda belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioaren proiektua gauzatzeko hartutako konpromisoak ez betetzeagatik, 211.632,36 euroko kalte-ordaina ordaindu behar dio enpresa eraikitzaile Murias enpresak Usurbilgo Udalari. Kopuru horren baitan daude, Muriasekin amaitu gabe utzitako obra bukatzeko kontratatutako azpikontratak, udal brigadak eginiko lana eta baliaturiko materiala, bertan bizitzen jarri izan ezin izan dutenei kobratu gabeko alokairuak, udal arkitekto teknikariaren dedikazio gehigarria

edota kontratu suntsipenerako Udalak kontratatu behar izan duen aholkularitza zerbitzua.

## Kobraketa

Txirikordako eraikitze lanak amaitzeko hartutako konpromisoa ez betetzeak "eragindako kalte eta galeren konpentsazioagatik" 200.000 eurotik gorako kalte-ordain hori zehaztea onartu zuen udalbatzak martxoaren 21eko ezohiko osoko bilkuran. Modu horretan, behin betiko onartu zuen Txirikordaren obra kontratu suntsiketaren likidazio

juridiko eta ekonomikoa, otsailaren 26ko saioan behin-behinean onartu ostean. Tarte honetan, Construcciones Murias S.A. enpresak aurkezturiko alegazioak ez onartzea ere erabaki zuen udalbatzak. Gogoan izan, udalbatzak aho batez Muriasekin sinatua zuen Txirikordaren obra kontratua suntsitzea erabaki zuen azaroaren 29ko osoko bilkuran, Ugartondon kokaturiko belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioa eraikitze lanez arduratu behar zuen Construcciones Murias S.A. enpresak bere gain hartuak zituen konpromisoak ez zituelako bete, eta ez behin, behin baino gehiagotan. Udalak kopuru hori kobratzeko "kontra-

**211.632 EUROKO KALTE-ORDAINA EZARRI ZAIO MURIASI**

tistak kontratu honetarako Usurbilgo Udalean ezarritako bermeak exekutatzea" ere erabaki zuten udal ordezkariak. Gainontzerakoan, konfiskatutako bermeen zenbatekotik gora eragindako kalte-galerak kobratzeko Udalak dagokion legezko prozedura jarraituko du". Hala, udalbatzak onartu zuenez, kontratistari jakinaraziko zaio kontratu horren 101.610,71 euroko bermea berrezarri beharko duela 15 egun naturaleko epean, "aurreko bermeen exekuziotik zenbatzen hasita". Berriki hedabideek ezagutzera eman moduan, Murias hartzekodunen lehiaketan murgildua dago. Udal gobernu taldetik martxoaren 21eko osoko bilkuran iragarri zuten, Usurbilgo Udala hartzekodun gisa agertuko da lehiaketa horretan.

## Irekiera, maiatzaren 10ean

Txirikorda belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioan mugimendua nabari da. Usurbilgo Udalak igaro berri ditugun oporren aurretik berri eman zuenez, "Txirikordako bizilagunek datozen egunetan sinatuko dituzte alokairu kontratuak". Mudantza lanei ekiteko giltzak, lehenago, hila-bete hasieran jaso zituzten. Bizilagunak bertan izanda, irekiera ekitaldi ofiziala egiteko unea helduko da. Hauteskundeak tarteko, aurreikusitako bano beranduago egingo da, maiatzaren 10ean. "Maiatzaren 10ean izango da Txirikordaren irekiera, arratsaldean, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte festara". Ordurako hila-bete inguru bizitzen izango dira lehenengo Txirikordako belaunaldi ezberdinetako kideak.





P E L L O L E H E N D A K A R I

ehbildu

ALDAKETA  
DĀ GRAIN\*







Pelaioenea eraikin berrituaren inaugurazioan, Orbeldi Dantza Taldeak dantzan jarri zuen Kalezar auzoko plaza.

# "Mugarri garrantzitsua izango da Kalezarrentzat"

Kalezarko Pelaioenea eraberritua zabaldu zuten martxoaren 23an; Usurbilgo Emakumeen Etxearen eta auzoko bizilagunen aterpe berria izango dena aurrerantzean. Inaugurazio ekitaldian zehar, instalakuntza berriak barrutik ikusteko aukera izan zen.

Pozarren agertu ziren Usurbilgo Emakumeen Etxeko talde sustatzaileko ordezkariak, ibilbide luzearen ostean, Kalezar-ko Pelaioenearen irekiera ekitaldian. "Inaugurazio eguna ez zela inoiz iritsiko zirudien", adierazi zuen Maria Fernandezek. Izan ere, oroitu zuenez, "gaurko ospakizunaren atzean prozesu luze bat dago, lan handia eta ilusio pila".

## Emakumeen Etxea: "Sare bat josten hasi gara"

Ibilbide honetan zehar, "bileretan eta herrian egindako ekintza desberdinetan nabarmen geratu da, emakume usurbildar izateko modu asko daudela. Hala eta guztiz ere, kontziente gara oraindik falta zaigula aniztasun hori guz-

tia biltzea. Ez da nahikoa, aniztasun hitza erabiltzea. Emakumeon Etxea denon etxea izango bada, estrategiak landu behar ditugu; adibidez, usurbildar berriez edota Kalezartik hurbil bizi ez direnek ere Emakumeon Etxea haiena dela sentitzeko eta parte hartzera animatzeko. Sare bat ere josten hasi gara, beste Emakumeen Etxeetara joan gara, eredu desberdinak eza-gutzera. Errenteria, Hernani eta Astigarragako lagunek mimo handiarekin hartu gintuzten eta beraiekin pista asko jaso genituen aurrera jarraitzeko. Eskerrik asko denei", adierazi zien Fernandezek.

## "Orain hasiko da abentura"

Aurrera begira, "espero dugu sarea indartzea eta geroz eta zabalagoa izatea. Etxe fisikoa

eraikitzea oso garrantzitsua zen bai eta orain aterpe zoragarri bat dugu; polita, modernoa, zorionekoakgu. Baina ezin dugu ahaztu, benetan ezinbestekoak direnak gu denok garela; guk, zuek, etxekideok eta eraikin honen inguruan zabalduko diren dinamikak, sortuko diren harremanak eta eztabaidak, hasiko diren proiektuak. Beraz, bidea ez da orain bukatzen, kontrakoa, orain hasiko da abentura. Gure esku dago, bizirik mantentzea eta erreferentziatzeko espazio bat bihurtzea".

## "ARGI DUGU EMAKUME IZATEKO MODU ASKO DAUDELA"

MARIA FERNANDEZ

## Alkatea: "Hurbildu zaitezte zuen etxera eta gozatu"

Aurrerantzean, Pelaioenea ireki berriaren elkarbiziko diren bi egitasmoak goraiatu zituen Usurbilgo alkateak. Batetik, adierazi zuenez, "nahiko nuke Pelaioenea Kalezar bizigarriago eta komunitate biziago bat eraikitzeko bilgune, aterpe edota sukalde izatea, eta nahiko nuke, halaber, emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko bidean gogoeta egiteko, esperientziak eta konplizitateak elkar trukatzeko, pentsamendua ekoizteko edota kolektiboki aurrera egiteko elkargunea izatea. Usurbilgo emakumeentzat erreferentziatzeko izango den espazio bat izatea nahiko genuke".

Emakumeen Etxearen dagoeneko bertara lekuz aldatu du berdintasun eta aniztasun saila. "Emakumeei eta herritarrei zuzeneko arreta bermatzea da helburua eta baita ere etxea bera dinamizatzea".

Halere, alkateak argitu nahi izan zuenez, "ez dugu nahi ordea, hau topagune huts bat izatea. Sareak sortzeko, aholkularitza jasotzeko, indarkeria matxistatik gabeko bizikidetzak sustatzeko, emakumeen ahalduntzea, parte hartzea, presentzia eta ikusgarritasuna lantzeko gunea izatea nahi dugu. Eztabaida, hausnarketa eta aldaketak ikuspegi feministatik pizteko gunea izatea nahi dugu. Bokazio horrekin landu dugu hain justu, apiriletik aurrera martxan jarriko den programazioa: aholkularitza zerbitzuak, ahalduntze eskolak, kultur ekitaldiak, hitzaldiak, liburu aurkezpenak...".

## "KOLEKTIBOKI AURRERA EGITEKO ELKARGUNEA IZATEA NAHI NUKE"

AGURTZANE SOLABERRIETA



**Elena Rikondo, Belmonte elkarteak: "Denontzako lekua egongo da"**

"Denontzako lekua egongo da", hala nabarmendu nahi izan zuen Pelaioeneko irekiera ekitaldian Kalezarko Belmonte auzo elkarteak kide Elena Rikondok.

Horretarako, ordea, gune berri hau baliatzeko erreserba sistema bat abiaraziko dute; online nahiz telefonoz bideratu ahalko dira bai goiko ganbara zein beheko bilera gela erabiltzeko eskaerak. Garrantzitsuz jo zuen, astean zehar goizero eta astean bitan arratsalde ere zabalik izango dutela Pelaioenea. "Etxe hau ordu askoz egongo da irekita, hori nahi dugu". Lehen ekitaldiatiko bat iragarri zuen apirilaren 20rako. Pelaioeneko programazioa zehaztu eta auzokideen proposamenak biltzeko baliatuko dute eguna. "Etxe hau mugarrizango dela espero dugu auzoarentzat eta herriarentzat", gaineratu zuen Rikondok.

Belmonteren ibilbidea errepasatuta, bide honetara batzera animatu zituzten gazteak eskertu zituen Elena Rikondok,

baita Udala ere "zuen prestasunagatik". Bide honetara batu zituzten, halaber, laster batean zabalduko duten Txirikorda belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioko bizilagun berriak. "Bolondres lana egin nahi baduzue, hemen izango duzue lekua".

Pelaioenea hortaz, bi proiekturen aterpe izango da; Usurbilgo Emakumeen Etxearena eta auzo ekipamenduaren bilgunea. "Biek ala biek Kalezarko auzoa bizigarriagoa egingo dutela uste dugu", aurkezle lanetan aritu zen Ane De Miguel kalezartarrak azaldu zuen moduan.

**Pelaioenea, erabilera anitzeko espazio berria**

Bi solairu ditu Pelaioenek. Goikoan, areto funtzioa egingo duen ganbara eder askoa. Behekoan, erabilera anitzeko eremua izango da bileretarako. Sukalde txiki bat ere badu, liburutegiaren txokoarekin batera. Bi sarbide ditu Pelaioenek eta irisgarritasuna bermatua du eraikinak. Izan ere, eskailerez gain, igogailu batek lotzen ditu bi solairuak.

**"ETXE HAU ORDU ASKOZ EGONGO DA IREKITA, ETA HALA IZATEA NAHI DUGU"**

ELENA RIKONDO

**"BI EGITASMOEK AUZOA BIZIGARRIAGOA EGINGO DUTE"**

ANE DE MIGUEL



Jendetza hurbildu zen Pelaioenea eraikin berriaren irekiera ekitaldira.



"Herriarron esku dago Emakumeen Etxearen egitasmoa bizirik mantentzea".



Zumarte Musika Eskolako ikasleek girotu zuten inaugurazio ekitaldia.



Kontsultatu gure programa hemen:  
[mirengorrotxategi.eus](http://mirengorrotxategi.eus)

# MIREN GORROTXATEGI

Elkarrekin Podemoseko lehendakariaga



## AUKERATU

## EZKERRA

## BOZKATU

elkarrekin  
Podemos 



## NOAUA!k publizitate arduraduna behar du

### Eskatzen dena:

- Kazetaritza, publizitate, ikus-entzunezko komunikazio edo marketin arloko ikasketak.
- Diseinu lanak egiteko ahalmena: InDesign, Adobe Photoshop, Canva...
  - Harremanetarako dohainak.
- Publizitate kanpainak definitu eta diseinatzeko gaitasuna.
  - Euskararen goi mailako ezagutza.

### Kontuan izango dira:

- E-posta marketin-erako ezagutzak: MailChimp edo antzerako softwareak
  - Gidabaimena izatea
- Berehala lanean hasteko prestutasuna.

### Eskaintzen dena:

Urtebeteko lan-kontratua, jardun erdikoa, epea luzatzeko aukerarekin.

Bidali curriculuma [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus) helbidera, apirilaren 26a baino lehen, "Publizitate arduraduna" erreferentzia adieraziz.

Logo of Euskaltzateen Topagunea, TOKIKOM, Bizkaia, araba/álava, and other regional organizations.

ERRO  
Amala Lejarreta

DENA ASMATUTA DAGO  
Jone Arriola

KATALINAREN ZORIA  
Guillermo Ordás

BABESA  
Ander Iruretagoyena

MUNDU BERRI BAT  
Mikel Alvarez

ZIRRARA  
Ane Cuesta

TALKAK  
Ilune Diaz eta Jordi Nuet

BETIZU BURU  
Kim Maiteny Munoa

Info +   



APIRILAREN 12tik  
MAIATZAREN 12ra

EUSKARAZKO FILM LABUREN  
**XXI.ZIRKUITUA · 2024**

**ABUR  
BIRA**

Tokia: SUTEGI (USURBIL)  
Eguna/Ordua: Apirilak 14. 18:30ean  
Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkarte





# Zubietarrak Gipuzkoako Joko Garbi Txapelketaren finalean



Gazteenen sari banaketako irudia.



Argazki honetan, helduen partidetak finalistak.

Gipuzkoako Joko Garbi Txapelketako finalak eta Errendimenduko Gipuzkoako Txapelketa jokatu zituzten Aste Santuaren atarian. Zenbait herritarrek hartu zuten parte partiduetan.

Joko Garbin, alebinek, Anetz Larrantek eta Aitor Ormazabalak, garaipena lortu zuten 34-40. Jubeniletan, Xuban Urdalleta eta Aitor Zabaleta aritu ziren, baina ez zuten garaipenik lortu 40-21eko emaitza-rekin.

Nagusiek ere ez zuten gailentzea lortu, Josu Aizpurua eta Ugaitz Rezola bikoteak 40-39 galduta.

Gipuzkoako ekialdeko txapelketan bestetik, infantil 2. mailako eskuz binakakoan, Ekain eta Markel Alejo nagusitu ziren, Mundarro 7-18 emaitarekin gainditu eta gero.



Argazkian, Usurbil eta Arantzazu arteko ibilbidea oinez osatu zuen kuadrilla.



Pagazpeko Aingeru Senperena eta Edorta de Anta, txapelketa irabazi berritan.

## "Beste bat gehiago"

Martxoaren 28an hamarkada luzeetako ohitura berri zuten; Usurbildik Arantzazurako ibilbidea oinez osatu zuten. Helmuga-ko irudian, ikurriña eta guzti dituzue aurtengo bidea martxoaren 28an osatu zutenak, aurreko edizioetan parte harturiko hainbat lagunekin batera.

## Euskal Pilota Egokituko txapeldun

Martxoaren 31n Zarauzko Aritzbatalden jokatu zen final handian Pagazpeko Aingeru Senperena goiazarra eta Edorta de Anta lekunberriarra nagusitu ziren. Txapeldunorde amaitu zuten Beñat Lizaso usurbildarrak eta Asier Navaridas sunbildarrak. Partidako azken emaitza, 25-10 izan zen.

## Ekai eta Markel Alejo, Gipuzkoako txapeldunak

Gipuzkoako ekialdeko txapelketa jokatu zen duela bi aste eta Alejo anaiek infantil mailako txapelketa irabazi zuten. Astigarragan Mundaroren aurka jokaturiko partiduan, aise nagusitu ziren.



## Usurbil K.E taldeko errifa zozketak

Azken aldi egindako errifa zozketetako zenbaki sarituak honako hauek izan direla berri eman du Usurbil K.E.-k:

- Martxoko zenbaki sariduna: 1242.
- Calella Txapelketako zenbaki sariduna: 3054.

## Lizaso Gipuzkoako txapeldun

Martxoaren 23an, buruz buruzko finalak jokatu zituzten Oñatin. Kemen taldeko Beñat Lizaso usurbildarra gorpildun aulkiko gomazko paleta txapelketako lehian nagusitu zen. 15-7 irabazi zion Asier Navaridasi.



13 milioi pasatxoko udal aurrekontuetatik ia 1'2 milioi euro bideratuko dituzte dirulaguntzetara.

# Dirulaguntza lerro berri bat iragarri du Udalak

Lerro berri hau, Usurbilgo Udalak lehendik egina zuen dirulaguntza eskaintzara batuko da.

Ekintza humanitarioak garatzen dituzten irabazi asmorik gabeko erakundeak diruz laguntzeko lerro berri bat txertatzea erabaki du Udalak, Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren 2024ko eranskinean. Zuzeneko dirulaguntza mota gisa definitu duen lerro honetara 10.000 euro bideratuko ditu Udalak.

Aipatu moduan, dirulaguntza lerro berri hau, lehendik Udalak zuen dirulaguntza eskaintzara batuko da. Abendu osoko bilkuran aurreratu zuen moduan, 13

milioi pasatxoko udal aurrekontuetatik ia 1,2 milioi euro bideratuko dituzte dirulaguntzetara. Otsailaren 16ra arte izan zen eskabideak aurkezteko aukera dirulaguntza lerro gehienetara, baina oraindik zenbaitetan parte hartzeko epeak zabalik segitzen du.

## Hasiz Hazi beka deialdia

• Xedea: proiekturen bat duen Beterrri-Buruntzako ekintzaileari Kabiene elkartearen elkarlan-gunean egonaldia diruz laguntzeko deialdia, norgehiagoka erregimenean.

- Kopurua: 4.500 euro. Ekintzaile bakoitzeko gehienez 1.742,40 euro, "beti ere ekintzaileak 12 hilabetetako erabilera izaten badu Kabieneen".
- Epea: irailak 30 (bi ebazpen kaleratuko dira; bat maiatzaren 31ra arte jasotako eskarekin, bigarrena irailaren 30era arte aurkezturikoeekin).

## Merkataritza lokal hutsetan jarduera ekonomiko berriak abiarazteko dirulaguntzak

- Bi lerro ditu: bat hasierako gastuak laguntzeko eta, bigarrena, lokalaren alokairu edo erosketa gastuak ordaintzen laguntzeko.
- Kopurua: 27.800 euro (11.000 euro lehen gastuei

## MERKATARITZA LOKAL HUTSEN KASUAN, BI DIRULAGUNTZA LERRO ONARTU DIRA

aurre egiteko, 16.800 euro lehenengo bi urteko alokairu edo erosketa gastuetarako; 9.600 euro lehenengo urterako, 7.200 euro bigarren urterako). Proiektuko gehienez 10.300 euro lehen urtean eta 3.600 euro bigarrenean.

- Epea: irailak 30 (bi ebazpen kaleratuko dira; bat maiatzaren 31ra arte jasotako eskarekin, bigarren irailaren 30era arte aurkezturikoeekin).
- Ordainketa: %70era bitarte dirulaguntza ebaztean, gainerakoa azken justifikazioa aurkeztutakoan.

## Norgehiagoka erregimenekoak ez diren kirol arloko dirulaguntzak

- Lau programa biltzen ditu deialdi honek: laguntza bereziak, taldeetako prestakuntza teknikoak, kirolarien oinarrizko osasun miaketak eta eskolaz kanpoko kirol jardueretan parte hartzeko dirulaguntzak.
- Epea: azaroaren 13ra arte aurkeztu ahalgo dira eskabideak (bi epealdi: bat apirilaren 30era arte, bigarrena azaroaren 13ra arte).
- Kopurua: laguntza bereziak (5.400 euro), taldeetako prestakuntza teknikoak (1.000 euro), kiroleko oinarrizko osasun miaketak (5.000 euro), eskolaz kanpoko kirol jardueretan parte hartzeko dirulaguntzak (5.000 euro).
- Ordainketa: dirulaguntza ebaztean, %100a ordainduko da.
- Aurkezteko modua:
  - Presentzialki udal erregistroan.
  - Telematikoki usurbil.eus atarian.

## Informazio gehiago:

Urtarrilaren 19ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.

**ARANKA BERRIKUNTZAK**  
 · Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak  
 · Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa  
 · Igeltseritza orokorra  
**606 37 21 05 USURBIL**

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*  
**USURBILGO HORTZ KLINIKA**  
 ANTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
 EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22  
**943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL**

**Uraltz, s.l.**  
 Igeltseritza Orokorra  
  
**693 059 392**  
 uraltz@uraltz.com USURBIL





Peio Ospital abeslariaren bisita izan zuten Euskal Kantu Taldeko kideek.

# Ezusteko bisitaria, kantu-jira berezian

Ezohiko saioak antolatzen ari da aurtengoan 15 urte bete dituen Usurbilgo Euskal Kantu Taldea. Palestinar herriaren eta Korrikaren harira euskararen alde abestu eta mobilizatu ostean, iragan martxoaren 24an Pantxoa eta Peiori eskainitako kantu-jira berezia egin zuten.

Haien abestiak kantatu zituzten, aurrez prestatu zuten liburuxka baliatuta. Ezustekorik ere izan zuten bira horretan. Kantu Taldeetik NOAUA!ri gogorarazi dioten moduan, "Peio Ospital abeslari beraren presentzia gure artean izan genuen denon harridurarako. Peio, Usurbilgo kantu-jiran ibili zen kantari gure arteko bat gehiago zelarik eta hori, guretzat ohore eta opari handia izan zen. Peio, esker oneko azaldu zen gure ekimenaren aurrean, hunkituta. Herriaren erantzuna, esker ona, dominarik hoberena zela adierazi zuen bere hitzaurrean, Mikel Laboa Plazan".

Hitzorduberezi honen bidez, "kantari hauen ibilbidea herriaren aurrean azaltzea eta aitortpena" egitea nahi izan

zuten, "nostalgian erortzeko tentazioak alde batera utzita, kantari hauen ibilbide historikoa denen ezagumenean aldarrikatzea". Izan ere, Usurbilgo Euskal Kantu Taldeetik oroitu duten moduan, "euskal kantagintzak eman duen bikoterik ezagun eta iraunkorrenetakoa osatu zuten Pantxoa Karrera eta Peio Ospitalek. Askatasunari, euskarari eta lurrari maitasuna adierazten dieten hitzak eta musika estilo jakin batekiko leialtasuna izan ziren bikotearen ibilbidearen ezaugarri nagusiak. Franco hil bitartean arazo ugari izan zituzten Pantxoak eta Peio Hego Euskal Herrian abesteko, debeku ugari jasan behar izan zutelarik. Gitarra eta ahotsak aski izan zituzten orduko euskal gizartearen kezka nagusiak

islatzeko, betiere konprometuz politiko garbi batez. Abesti bakoitza 'mitin' bat bailitzan hartzen zuten frankismo garaiko gizarte hark".

## "Kantuaren euskal militanteak izan ziren"

Usurbilgo Euskal Kantu Taldeetik Pantxoak eta Peioek eginiko ekarpena goraiatu eta eskertu nahi izan dute. "Hor egon ziren Pantxoa eta Peio, euskaldunongan kontzientzia abertzalea, etorkizuna eta alaitasuna pizten lagundu

## HERRIAREN ESKER ONENA DELA ADIERAZI ZUEN PEIO OSPITALEK

zuten mugimendu bat sortuz, ordaindu gabeko ordu asko isiltasunean pilatuz, multak eta poliziaen pertsekuzioari aurre eginez... Kantuaren euskal militanteak izan dira, beti prest deitutako herrian kantatzeko. Milesker Peio eta Pantxoa".

## Datorrena ere berezia

Omenaldi bilakatu zuten martxoako kantu-jira bereziaren ondotik, apirilkoa ere ezohikoa izango da. Izan ere, hila-ren 27an egokituko da hila-bete honi dagokion kantu-jira. Ohi bezala, 12:00etan abiaraziko dute Mikel Laboa plazatik, baina segidan, Or-beldik azkeneko larunbat horretarako antolatutako 12. Dantza Egunarekin bat egingo dute. Kantu-bazkaria antolatu dute Askatasuna plazan. Txartelak Artzabalen eskuratu ahalko dituzue.

## Bertso- ibilaldia sagastietan barrena

Apirilaren 21ean eta Alkartasuna kooperatibaren eskutik, "sagardoaren paisaia kulturala ezagutzeko parada izango da, Maialen Lujanbio eta Andoni Egañaren bertsoak adituz eta Jakoba Errekondoren argibideak jasoaz". Iragan urriaren Aginagako erriberetako sagastietan barrena egin zuten ibilaldia. Oraingoa, Zubietako Iruin sagardotegiko aparkalekutik abiaraziko dute; goizeko 10:00etan.

Izena aurrez eman beharko da: [alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com) / 943 361 114.



Gaur egun 30 minuturo zirkulatzen duten ibilgailuek 15 minuturo zirkulatu ahal izango dute.

# 32 milioi eurokoa, Aginagako tunela eraiki eta trenbidea bikoizteko lanen lizitazioa

Otsaileko plenoan, Euskal Trenbide Sarearen eta Udalaren arteko hitzarmena adostu zutela berri eman zuten. Lankidetzaren hitzarmen hau aho batez onartu zuten.

Egunotan proiektu horri buruzko beste albiste baten berri izan dugu. Eusko Jaurlaritzaren Garraio Sailak tren zerbitzuen maiztasuna handitzea helburu izango duten lanok esleitu dituela iragarri du, 32 milioi euroren truke. Zehazkiago esanda, "Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plan-gintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren esku dagoen Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoaren kontratazio-batzordeak" atera ditu "Aginagako trenbide-saihesbidearen eraikuntza" lanok. 40 hilabeteko epea finkatu du lanok egiteko.

**Tren zerbitzua ordu laurdenero** "Lizitaziorako lanak, funtsean, 1.329 metroko luzerako trenbide bikoizteko meategi-tunel bat eraikitzean oinarrituko dira. Bi muturretan tunel fal-

tsuko egiturak proiektatu dira, obra ingurunean integratzeko. Bilbo aldean 24 metroko luzera izango duen soluzioa diseinatu da, eta beste aldean, Donostiakoan, 30 metro izango ditu. Tunelak 371 metro luzeko larrialdietarako galeria bat ere izango du", aurreikusi dute Eusko Jaurlaritzatik. Lan hauen eraginez, Eusko trenetik ziurtatu dutenez, "trenbidearen trazadura berriak 1.500 metro inguru mu-

**GARRAIO SAILAK ESLEIPENA EGINA DU ETA LANAK BURUTZEKO 40 HILABETEKO EPEA FINKATU DU**

ritzuko du ibilbidea, eta 2 minutu murriztuko du Aia-Orio eta Usurbil geltokien arteko bidaiarako denbora. Tunel osoan trenbidea bikoiztuko denez, bidaiarien eta salgaien unitateak gurutzatu ahal izango dira. Baldintza horiekin, trenbidearen zerbitzu-ahalmena handitu egingo da, eta, beraz, gaur egun 30 minuturo zirkulatzen duten ibilgailuek 15 minuturo zirkulatu ahal izango dute".

**TXOKOALDEKO TREN GELTOKIAREN ESKAERA ORDEA EZ DA ORAINGOZ AINTZAKOTZAT HARTU**

## "Bidaiarien erosotasun- eta segurtasun-baldintzak optimizatzen lagunduko du"

Aldea nabaritu da beraz, tren zerbitzuan. Izan ere, proiektu honen sustatzaileek oroitarazi duten moduan, gaur egun "93+166 eta 96+151 kilometro-puntuen arteko trenbide-trazadura trenbide bakarrean doa, Oria ibaiaren paraleloan. Puntu horretan meandro bat egiten du, eta, beraz, bihurria da, erradio txikiko kurbak eta kontrakurbak ditu. Gaur egun trenek Aginaga mendia inguratzen dute. Unitateek 9 minutu behar dituzte Aia-Orioko eta Usurbilgo geltokiak lotzeko".

Lanok amaituta, aldiz, trenak ordu laurdenero igaro ahalko dira trenbide zati honetatik. Horrez gain, "trazadura-alda-ketarekin ustiapena ere hobekuntza nabarmena lortuko da. Trazaduraren inguruan zuhaitz eta ezpoda ugari daudenez arazo asko sortzen dituen baso-eremua uztean, azpiegituran eragin gutxiago sortuko da eta mantentze-lanak murriztu egingo dira. Horrek bidaiarien erosotasun- eta segurtasun-baldintzak optimizatzen lagunduko du".

## Hitzarmena sinatua

Lanen esleipenaz gain, Usurbilgo Udalarekin adosturiko lankidetzaren hitzarmenari buruz ere mintzatu da Euskal Trenbide Sarea. Sinatu dutela aditzera eman du eta Udalak aurreratu moduan, Txokoaldeko bizilagunekin batera landutako alegazioetako bat bideratuko dutela berri eman du; auzo hau eta Aginaga Oria gainetik lotzen dituen Altzo-nazko zubiaren birgaitzea hain zuzen. "Igarobidea 60 urte baino gehiago dituzten harlangaitzezko zutabeek eta lauza motako hormigoizko habeek osatzen dute. Hartutako soluzioa egungo taularen zeharkako sekzioa handitzean oinarrituko da, trenbideak 3,80 metroko zabalera izan



dezan, eta espaloiak 2 metrokoa, galtzadaren eta oinezkoentzako gunearen arteko elementu bereizleekin", azaldu dute ETS-tik.

Ez du zehaztu lanok noiz hasiko diren. Ondorioz, hitzarmen hau onartzeko otsailaren 29an egindako osoko bilkuran udal gobernu taldeetik azaldu zuten moduan, obra hauen eragozpeni aurre egiteko beharrezko planifikazioa bideratzea zailtzen du horrek.

### Geltokiari ezetz

Proiektu hau ontzeko eskaera gehiago ere eginak zituzten Udalak eta Txokoaldeko bizi-lagunek, bi helbururekin hain zuzen; obrek ingurumenean eta txokoaldetarren egunerokoan izango duten eragina

gutxitzeko. Aurkezturiko alegazioak honako hauek izan ziren: Txokoaldeko sarrera-irteerak hobetzea, Oria zeharkatzen duen Altzonazko zubia konpontzea, tren pasabidea ezabatzea, obrarako bide alternatiboa eta etorkizunerako bidegorria eraikitzea, Txokoaldeko tren geltokia berreskuratzea eta lan guztiok izango duten eragina murriztea galdegin zuten. Ekarpenok aintzat hartzea eskatu zioten Eusko Trenbide Sareari.

Trenbide pasagunea ezabatzeari kentzeari dagokionean, horretarako aukera teknikoak aztertzeo konpromisoa zehaztua dago hitzarmen horretan. Urtebeteko epean, "trenbidea beste maila batean gurutzatu ahal izateko"

aukerak aztertzeo Udalak eta ETS-k lan-batzorde teknikoak eratuko dutela gaineratzen du.

Udal gobernu taldearentzat, halere, ez dira aski konpromisook. ETS-k aintzakotzat hartzea lortu ez duten eskaeren artean da, Txokoaldeko tren geltokia berreskuratzea. "Azken unera arte borrokatu dugu. Gaurkoz, ordea, tamalez, ez diote bide eman", alkateak otsailaren 29ko osoko bilkuran berri eman zuenez.

ETS-tik arazoak aipatu zizkietela adierazi zuen alkateak; erabiltzaileak, trenbidea berri beharra eta tren zerbitzuen maiztasuna indartzeko geltokia berreskuratzeak ekar dezakeen denbora galera. Horren aurrean, alterna-

tibak proposatu zizkietela adierazi zuen alkateak: tren zerbitzu guztiak Txokoalden ez geratzea, "premia handieneko orduetan" baizik; denbora galerarik ez izateko, zenbait uneetan trena Usurbilen geratu ordez, Txokoalden geratzea; edota Usurbilgo geltokia eta Txokoalde zein Aginaga aldea lotuko dituen autobus zerbitzua ezartzea ordu zehatzetan.

Eskaera hauei ezezkoa emateaz gain, udal gobernu taldeetik osoko bilkuran azaldu zuten, hitzarmena ez sinatzeko arriskuan izan zirenez, geltokia berreskuratzeo eskaera bertan ez jasotzea adostu zuten, baina ohartarazi dutenez, "eskaera hori bul-tzatzen jarraituko" dute.

## EAJ-PNVk "pozez" hartu du Eusko Jaurlaritzak Aginagako tunelaren lanak martxan jarri izana

Eusko Jaurlaritzako trenbide azpiegiturak kudeatzen dituen ETS erakundeak Aginagako tunelaren obra martxan jarriko duela iragarri du. "Honenbestez, usurbildarrak irabazten aterako gara. Tren zerbitzu hobea izango dugu, bai Donostiarako noranzkoan, zein Zarautzerakoan. Usurbilgo EAJ-PNVtik pozez hartzen dugu Eusko Jaurlaritzatik garraio publikoaren alde egiten den apustua, eta dagoeneko martxan dagoen Usurbilgo geltoki berriaren lanekin, zerbitzu irisgarriagoa izateaz gain, maiztasun lehiakorrek izango ditugu erabiltzaileok kostaldeko tren sarean".

Iragarpenarekin batera, epeak eta diru zuzkidura ere zehaztu dira. "Esleipen prozedura martxan ipini da, 40 hilabeteko epea aurreikusten da eta 32 milioiko aurrekontua. Modu honetan, hamar-kada luzez eskaturiko proiektua errealitate izatetik gero

eta hurbilago dago", alderdi jeltzaleak aditzera eman duenez.

### Maiztasuna handituko da

Usurbilgo herria igaro ondoren, Euskotrenek Oria ibaiaren ibilgua jarraitzen du. Traza-tuaren forma konplexuak eta errail bakarra izateak, nabarmen baldintzatzen du eskaintzen den tren zerbitzua. "Hemendik aurrera, 1,5 kilometrotako tunel berri bat eraikiko da, zuzenagoa, eta ibilbideko denbora 5 minututan aurrezteaz gain, sarearen gaitasuna asko hobetuko da, errail bikoitza izango baitu, norabide bakoitzean bana". EAJ-PNVren ustez, berrikuntza honek, "gaitasuna emango digu usurbildarro trenbide maiztasun hobea izateko. Gaur egun, 60 minutu edo 30 minutuko maiztasuna ematen den tokian, 15 minutu arteko zerbitzuak eskaintzeko gaitasuna izango da".



EAJ-PNVren esanetan, tren zerbitzuak modernoa eta erakargarria behar du izan.

Onurak egunero hiriburura lanera edo unibertsitatera doazen usurbildarrek igarriko dituzte, "15 minuturo kalitatezko garraio zerbitzu publikoa izango dutelako, berdin Orio edo Zarautz aldera joan nahi dutenek ere".

### Mugikortasun jasangarriaren eta unibertsalaren alde

Ibilgailu partikularra ekiditeko, eta garraio publikoa indartzeko, funtsezkoa da zerbitzu erakargarria izatea. "Gurpildun aulkian edota hauraren karroarekin doazen erabiltzaileak, bizikletan mugitu nahi duten horiek... ala kotxea ordez, trenez mugitu

nahi duten horiek, ezinbestekoa dute azpiegitura modernoa eta zerbitzu erakargarria izatea, hor kokatzen dugu mugikortasun jasangarriaren eta unibertsalaren aldeko gure apustua".

### Urbilen geltoki bat ipintzeko aukera aztertzearen alde

Etorkizuneko erronkak identifikatzeko garaia den honetan, EAJ-PNVk bestelako lehentasunak ere nabarmendu nahi ditu. "Adibidez, interesgarria iruditzen zaigu Urbil merkatalguneko ingurunean geltoki berria izateko aukera aztertzea. Igo gaitezen etorkizuneko tren-nera".

# XXI. Laburbira Sutekira iritsiko da igande honetan

Azken urte luzeetan egin bezala, aurten ere Laburbira film laburren zirkuitua Usurbilera iritsiko da. Igande honetako proiektioan, zortzi film labur izango dira ikusgai Sutekiko auditorioan.

Igande honetarako antolatu du NOAUA!k urtero egin ohi duen legez Laburbira. XXI. edizioa izango da aurtengoa eta zortzi film labur ikusteko aukera eskainiko dute. 18:30etik aurrera sarrerarik ordaindu gabe denetariko estioetako euskal filma laburrez gozatzeko aukera paregabea izango da Sutegin.

Laburmetraiak helduei zuzendutakoak dira.

Emanaldia amaitzean, zortzi film horietako bateko zuzendariarekin solasaldia ere izango da. Beste urte batzuetan bezala, eta ikusleei ahalik eta emanaldi aberasgarriena eskaini asmoz, 80-90 minutuko film labur sorta ikusgarriak osatuko du 2024ko bilduma.



'Dena asmatuta dago', Jone Arriolaren filmaren aurrerapen irudia.

Eta berrikuntza gisara, ikusleek film labur onena hautatzeko aukera izango dute aurtengo edizioan. Hona parte hartuko duten filmak: *Dena asmatuta dago* (Jone Arriola), *Katalinaren zoria* (Guillermo Ordás), *Erro* (Amaia Lejarreta), *Babesa* (Ander Iruretagoyena), *Mundu berri bat* (Mikel Alvarez), *Zirrara* (Ane Cuesta),

*Talkak* (Ilune Diaz eta Jordi Nuet) eta *Betizu buru* (Kim Maiteny Munoa).

Usurbilgo emanaldira hurbiltzeko aukerarik ez duenak, aukera izango du inguruko herrietan ikusteko apirilaren 12tik maiatzaren 12 bitarte. Informazio gehiago, irudienea. [topagunea.eus/egitasmoak/laburbira/](http://topagunea.eus/egitasmoak/laburbira/) web orrialdean.

# Etumeta AEK euskaltegia: "Harro gure herriaz"

"Etumeta AEK euskaltegikook oso gaude harro herriaz, harro gure herriaz, eta hunkituta, eman diguzuen laguntza guztiagatik". Eskertza mezu hau plazaratu dute euskaltegiko kideek 23. Korrikaren agurrean.

Martxoaren 21ean borobildu zuten Korrikari eskainitako zikloa, herrian barrena eginitako kultur ibilbidearekin. Geldialdietan, herrikideek giroturiko emanaldi labur bezain ederrez gozatzeko parada izan zuten parte hartzaileek. Txiriboga parean, Ixabel Agirresarobek lekukoa irudikatzen duen makila ezagunari buruzko kontakizun batekin ekin zion hitzorduari; haren lekukoa Alberto Pikabeak hartu zuen Aitzaga

parean, Korrikari buruz umoretik eginiko hausnarketa zorrotzarekin.

Kalejira Artzabalera heldu zenerako zain zituzten Usurbilgo Euskal Kantu Taldekoak. Amaitzeko, Usurbilgo Txalaparta Eskolako kideek ere erakustaldi ederra eskaini zuten Zumetaren muralaren parean. Geldialdi guztietan, bertsolariek hartu zuten hitza. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan murgiltzear den Uxue Fernandez, Aitor Agirre eta



Martxoaren 21eko kultur ibilbidean eragile askok hartu zuten parte.

eta Lasarte-Oriako Lierni Rekondo aritu ziren kantuan.

## Etumeta AEK euskaltegiaren adierazpena

"Bazetorrela, bazetorrela, eta konturatzerako joan zaigu 23. KORRIKA. Aurreko hogeita biak bezalaxe, aurtengoa ere mundiala izan da zuen laguntzari esker. Kilometro zehar, ibilbidea motz gelditu zaigu

usurbildarroi: lekukoa inoiz baino esku gehiagok eraman dute, eta ilusioz hartu ditu honen denak ere. Pausoz pauso, ozen entzun da gure oihua: Usurbilen ere euskararen alde! Horregatik, Etumeta AEK euskaltegikook oso gaude HARRO HERRIAZ, harro gure herriaz, eta hunkituta, eman diguzuen laguntza guztiagatik. Bejondeizuela!

Izango dugu bihar ere zuen beharra, mila esker bihotz-bihotzez, eta harro hadi, Usurbil!"



## MERKATU TXIKIA

## ETXEBIZITZAK

## ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoda: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki baten bila gabilta. 627184674

Lursail ez urbanizagarri baten bila nabil Usurbilen, Aginagan edo Zubietan. 617 771 303.

## MOTORRA

## SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko, herriaren erdialdean. 636601644.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 652 765 583.

## IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAINTZAK

Emakume bat, interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen. 624744514.

Interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen 641136135.

Usurbil edo inguruetan, garbiketa lanak egiteko eskaintzen naiz, behala hasteko moduan 74745055

DBH3ko ikasle bati matematika, fisika eta kimikako errefortzu-klaseak

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

emango dizkion unibertsitateko ikasle bat behar dugu. 615 75 84 76.

Saizarren zerbitzaria behar da, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

Aginaga sagardotegian txotx garaian larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAERAK

Pertsona helduen zein haurren zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Baita zerbitzari edo garbiketa lane-

tarako ere. Orduka zein interna aritzeko disponibilitatearekin. 687126811

Pertsona helduarentzako laguntzaileria behar dugu Antiguon astean bost orduz, euskaraz dakiena. Eusko Jaurlaritzaren titulua ezinbestekoa. 609 582 242

Pertsona helduak zaintzeko, garbiketa lanetarako... 672 730 902

Garbitasun lanak egingo nituzke. 9:00-16:00 arteko disponibilitatea. 632157186

Neska euskalduna umeak ikastolara eramateko edo zaintzeko prest legoke. 635 007 449 (Leire).

## BESTELAKOAK

Pertsona helduentzako gorpildun aulkia salgai,berri-berria. Inovys II RG C markakoa. Oinak altuan jartzeko posizioa dauka eta burua eusteko sortea. Intesatuak deitu 666894283 telefono zenbakira (Ana).

## TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldetgia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 11	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Ostirala, 12	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Larunbata, 13	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Igandea, 14	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Astelehena, 15	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Asteartea, 16	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Asteazkena, 17	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Osteguna, 18	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Ostirala, 19	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Larunbata, 20	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Igandea, 21	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21

## GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Mañe i Flaquer plaza, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

## Eskubaloia Oiardon

## Apirilak 12, ostirala

- 17:30 Infantil mutilak: Usurbil KE A-Hernani
- 20:00 Senior neskak: Urbil Usurbil KE-Pulpo

## Apirilak 13, larunbata

- 10:00 Infantil mutilak: Usurbil KE B-Leizaran Urdina
- 11:15 Infantil neskak: Usurbil KEA-Ereintza Beissier
- 17:30 Kadete mutilak: Usurbil KE-Eibar B

## Futbol partidak

## Apirilak 13, larunbata

## Haranen:

- 09:00 Infantil mutilak: -Usurbil FT B
- Astigarraga Mundarro FKE
- 10:30 Kadete mutilak: -Usurbil FT B
- Billabona KE B
- 12:15 Kadete neskak: -Usurbil FT
- Lagun Onak CD
- 16:00 Jubenilak: Usurbil FT B-Oiartzun KE C

## Haranetik kanpo:

- 9:00 Infantil neskak, Berion: Antigua Luberrri-Usurbil FT
- 17:30 Erregionalak, Trintxerpen: Trintxerpe B-Usurbil FT B
- 17:30 Gorengoen neskak, Donostiako Matigoxotegin: Irauli Bosteko KK-Usurbil FT

## Apirilak 14, igandea

## Haranen:

- 11:00 Kadete mutilak: Usurbil FT-Urki CD B

## Haranetik kanpo:

- 10:00 Jubenilak, Urnietan: Urnieta KE-Usurbil FT
- 12:15 Kadete neskak, Lazkao: Arizti Handin: Goierri Gorri FK C-Usurbil FT B
- 17:30 Gorengoen mutilak, Puion: Axular KKE-Usurbil FT

## Boleibola

## Apirilak 13, larunbata

## Haranen:

- 13:00 Kadeteak: Udarregi-Oarso Gorria

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

## OSTIRALA 12

## USURBIL 'Zumetaren Usurbil' erakusketaren irekiera

Zumetaren eta Usurbilgo herriaren arteko hartuemanen sakontzen duen erakusketaren irekiera ekitaldia.

18:00 Sutegiko erakustaretoan.

## LARUNBATA 13

## USURBIL Andatzako defentsa-lerroari ibilaldi gidatu eta antzeztua

Izen-ematea: aurrez, usurbilkultura.eus plataforman edo Potxoenean.

9:00 Mikel Laboa plazatik.

## USURBIL Inurri elkartekoen 'Crisálida' liburuaren aurkezpena

11:30 Potxoenean.

## TXOKOALDE 'The Bedbreakers' musika akustikoa

12:30 Erroizpe elkartean.

## IGANDEA 14

## USURBIL 'Usurbil Museo Irekia' bisita gidatua

12:00-13:30 Sutegitik abiatuta.

## USURBIL 'Laburbira'

Zortzi film laburrekin osatutako bildumaz gozatzeko aukera.

18:30 Sutegin.



Usurbil 1936 elkartekoen hiru lubaki ipini dituzte ikusgai.

## Andatzako defentsa-lerroari buruzko bisita gidatua

Ekimen honen helburua Usurbilen eta Andatza mendian 1936ko gerraren inguruan jazotako zenbait gertaeretatik bat abuztu bukaera eta iraila erdialdera artekoak - informatzea, testuinguru historikoa azaltzea eta 2022-2023an egindako lan arkeologikoaren ostean berreskuratutako lubakiak erakustea da.

Bisitarien taldea era egokian kudeatzeko, parte hartzaileen kopurua mugatua izango da.

## Egitaraua:

- 09:00 Mikel Laboa plazan biltzeko hitzordua.
- 10:00-13:30 Ibilbide gidatu eta antzeztua Puelatik Andatza gainera.
- Gehienezko parte hartzaile kopurua: 80. 12 urtetik gorakoak. Animaliak ezin dira eraman.
- Izen-ematea: aurrez, usurbilkultura.eus plataforman edo Potxoenean.
- Antolatzailea: Usurbil 1936.

## 'Irakur-jolas txokoa' udal liburutegian

Ekitaldi hau apirilaren 15ean egingo da, astelehena-rekin, arratsaldeko 18:00etan udal liburutegian. 6-8 urteko haurrei eta euren gurasoei zuzendua dago. Kontuan izan haur bakoitzak heldu batek lagunduta joan behar duela eta plaza kopurua mugatua izango dela. Informazio gehiago, udal liburutegian bertan.



Erroizpen arituko dira.

## The Bedbreakers Txokoalden

Nagore ete Jorge Errenteriako bi musikariek osatzen dute The Bedbreakers taldea. Erroizpe elkartetik aditza eman dutenez, "musika lasaia egiten dute, entzule denentzat egokia". Erroizpe elkartearen atarian arituko dira, larunbat honetan, hilak 13, eguerdiko 12:30ean.

## Usurbilgo Elkargunea

Laugarren bilkura apirilaren 20an izango da, goizeko 10:00etatik aurrera, Udarregi ikastolako jangelan.

Elhuyarrek dinamizatuko du eta gai ordenean hizpide hauek ageri dira: kudeaketa eredua, barne-antolaketa edota nola egituratu.


  
**ARTZABAL**
  
 BASERRIA · JABETXEA
   
[www.artzabaljabetxea.com](http://www.artzabaljabetxea.com)

· EGUNEKO MENUA
   
 · KARTA
   
 · RAZIOAK
   
 · HANBURGESAK
   
 · BOKATAK
   


  
 943 36 91 39

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.eus





## ENERGIA AHOLKULARITZA ZERBITZUA

Energiari buruzko zalantzak  
argituko dizkizugu, doan:  
ekarri argindarraren  
eta gasaren fakturak,  
eta egokiak diren ikusiko dugu

**Hartu hitzordua!**

943 37 19 51 / [iromero@usurbil.eus](mailto:iromero@usurbil.eus)

## NOAUA!k UDALEKU IREKIETAN aritzeko HEZITZAILE eta ZUZENDARI lan poltsa DEIALDIA

**LEHENETSIKO DA:**

- Begirale  
edo zuzendari titulua izatea
- EGA izatea
- Usurbildarra izatea

### Interesatuak:

Curriculum-ak ekarri edo bidali:  
Noaua! Kultur Elkartea  
Bordaberri 3, Usurbil edo  
[elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus)

- *Sexu delituen ziurtagiri eguneratua bidali*  
Curriculum-arekin batera  
bidaltzeko azken eguna: maiatzak 10

**noaua**





# URDAIRA

## Sagardotegia

943 37 26 91

Aginaga

Astelehenak itxita

  @urdairasagardotegia | www.urdairasagardotegia.com



## OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



## LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 19tik maiatzaren 5era  
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa larunbatetan  
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**

Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867

www.iruinsagardotegia.com



## ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehen eta astearte izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) •  943 55 69 81



943 37 39 95

## SAIZAR

Sagardotegia

www.sidrassaizar.com



## SAGARDOTEGIA

aginaga

URTE OSOAN  
ETXEAN EGINDAKO  
SAGARDOA  
astelehenetan itxita

Tfno-fax: 943 36 67 10  
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL  
info@aginagasagardotegia.com  
www.aginagasagardotegia.com



Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!

**ORDUTEGIA:**

Asteazken eta ostegunak: 20:00-01:00

Ostirala: 13:30-18:00 / 20:00-01:00

Larunbata: 13:00-18:00 / 20:30-01:00

Igandea: 13:30-18:00

%100 bertako sagarra

Tel: 943 365 031

Santuenea

